



DIRUZ LAGUNDUTAKO TAXIA, APIRILAREN 8TIK

Autobusarekin lotura egiteko taxi zerbitzua izanen da. Helburua, garraio publikoaren erabilera eta herritarrendako sarbidea bultzatzea da, erabiltzaileek kontzejuetatik Auza eta Irurtzongo autobus geltokietara joan ahal izango baitute. Taxiak beren kontzejuan jasoko ditu eta dagokion autobus geltokira eramán (Ibilbidea, hurrengo orrialdean). Zerbitzua 3 eurokoa izanen da eta aurreko egunean erreserbatu beharko da, 19:00ak baino lehen. Apirilaren 8an izanen da lehenengo bidaia (erreserbak, 7an).

Joatea:

- Auzatik 06:54ean aterá
- Irurtzundik 10:54ean aterá

Itzultzea:

- Iruñetik 15:30ean aterá Auzarantz
- Iruñetik 18:00etan aterá Irurtzunerantz

Honetarako, Basaburuko Udalak hitzarmena sinatu du Nafarroako Gobernuarekin eta 15.000 euroko aurrekontu-saila jasoko du.

TAXI SUBVENCIONADO, DESDE EL 8 DE ABRIL

Un servicio de taxi, para enlazar con la línea de autobús. De esta manera, se quiere impulsar el uso del transporte público y facilitar el acceso. Gracias a este servicio, las usuarias podrán ir desde los concejos a la parada de autobús de Auza e Irurtzun ya que el taxi les recogerá en su concejo y les llevará a la correspondiente parada (el recorrido, en la próxima página). El servicio costará 3 euros y habrá que reservarlo el día previo, antes de las 19:00. El primer viaje será el 8 de abril (reservas el día 7).

Ida:

- Salida de Auza a las 06:54
- Salida de Irurtzun a las 10:54

Vuelta:


- Salida de Iruña a las 15:30 hacia Auza
- Salida de Iruña a las 18:00 hacia Irurtzun

El Ayuntamiento de Basaburua ha firmado un convenio con el Gobierno de Navarra por el que recibirá 15.000 euros para realizar el enlace con el servicio de autobús.



DIRUZ LAGUNDUTAKO GARRAIOAREN IBILBIDEA/ RECORRIDO DEL TRANSPORTE SUBVENCIONADO

Udabe- Auza/ Auza- Udabe:



Orokieta- Irurtzun/ Irurtzun- Orokieta:



ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEAREN BALDINTZAK HOBETU

Basaburuko Udalak Zerbitzu anitzetako langilea D mailatik C mailara igotzea onartu du eta horretarako lanpostua barne promozio bidez betetzeko prozesua jarri du martxan. Urtarrilean ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta orain, prozesua osatzeko azken pausuak falta dira. Behin betiko zerrenda onartu da, gaur egungo langileak bakarrik osatzen duena, eta honek apirilean froga burutzea besterik ez litzateke faltako. Barne promozio honen helburua udaleko zerbitzu anitzetako langilearen baldintzak hobetzea da.



MEJORA EN LAS CONDICIONES DEL PUESTO DE SERVICIOS MÚLTIPLES

El Ayuntamiento de Basaburua ha aprobado elevar de categoría el puesto laboral de servicios múltiples. Para ello, ha puesto en marcha el proceso para ocupar el puesto, mediante promoción interna. El decreto se publicó en enero en el Boletín Oficial de Navarra. Ahora falta completar los últimos pasos para finalizar el proceso. Se ha aprobado la lista definitiva de admitidos, en la cual solo figura el actual trabajador, que tendrá que realizar la prueba en abril. El objetivo de esta promoción interna es mejorar las condiciones del puesto de servicios múltiples.



BASABURUKO UDALA, KORRIKAN

Korrika martxoaren 22an pasatu zen guretik gertu. Horregatik, Basaburuko Udalak kilometro bat erosi du euskararen aldeko ekimen hau babesteko. Hain zuzen ere, 680. kilometroa, Gelbentzun (Odieta), 8.00ak pasatxo egin genuena. Izan ere, Korrika Atetz, Ultzama eta Odieta zeharkatu zituen Iruñera abiatu aurretik. 24. edizioa martxoaren 19an ateraz zen Atharratzetik (Basabürüa, Zuberoa) eta 29an Bilbon (Bizkaia) amaitu.

EL AYUNTAMIENTO EN LA KORRIKA

La Korrika ha pasado muy cerca este 22 de marzo. Por eso, el Ayuntamiento de Basaburua ha comprado un kilometro para apoyar esta actividad en favor del euskara. Es el kilometro 680, que completamos en Gelbentzu (Odieta), pasadas las 8:00. Y es que esta Korrika ha pasado por Atetz, Ultzama y Odieta, antes de coger rumbo a Iruña. Es la edición número 24, que salió de Atharratzte (Basabürüa, Zuberoa) el 19 de marzo y termina en Bilbo (Bizkaia) el 29.

M8: UDALA, FEMINISMOAREN LORPENekin

Pasa den martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zen eta Basaburuko Udalak berdintasunaren aldeko hainbat adierazpen instituzional onartu zituen tokiko beste erakundeekin batera. Gainera, Berdintasun Batzordeak emakumeen afaria antolatu zuen, martxoaren 6an, Igoako Ostatuan.

8M: EL AYUNTAMIENTO CON LOS LOGROS DEL FEMINISMO

El pasado 8 de marzo se celebró el Día Internacional de la Mujer y el Ayuntamiento de Basaburua ha firmado varias declaraciones institucionales en favor de la igualdad, junto al resto de entidades locales. Además, la Comisión de Igualdad organizó la cena anual de mujeres, el 6 de marzo, en Igoa.

M8ko adierazpena/
Declaración del 8M



GAZTEENDAKO UDALEKU IBILTARIA, EUSKARAZ

Basaburuko Udala kide den Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak Salto! izeneko udalekuak antolatu ditu uda honetarako, gazteei zuzenduak eta euskaraz. Bi txandatan, parte hartzaileek Markina-Xemeindik aterako dira eta Ondarroaraino ibilbidea osatuko dute, astebetez. Izen ematea martxoaren 31a arte.

CAMPAMENTO ITINERANTE EN EUSKARA PARA JOVENES

La Mancomunidad de Municipios Vascos, de la que forma parte Basaburua, ha organizado un campamento itinerante, Salto!, dirigido a jóvenes y en euskara. En dos turnos, las participantes irán desde Markina-Xemein hasta Ondarroa, en un recorrido que durará una semana. Inscripciones, hasta el 31 de marzo.

Salto! Info + /
+ Info sobre Salto!



EGUTEGIA/ CALENDARIO:

MARTXIA/ MARZO						1	
	2	3	4	5	6	7	8
	9	10	11	12	13	14	15
	16	17	18	19	20	21	22
	23	24	25	26	27	28	29
	30	31					

- M8 - EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA
- KORRIKA KULTURALA-KIDAM MAGOA
- KORRIKA TXIKIA - 12:00 OIHANZABAL ESKOLA
- MILAGROS ETA VALENTINA ANTZEZLANA - 19:00 APEZTEGIBERRI
- 24. KORRIKA - ATETZ, ULTZAMA ETA ODIETA
- PALA ETA FRONTENIS TXAPELKETA FINALAK